

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Proiektuaren izena: LEZE

LEZE proiektua natura eta pertsonak batzeko aplikazioa da. Azken urteetan ohitu izan gara gure mendiak eta ingurune naturalak gure aisialdian albo batera uztera. Horregatik, ohitura berri horiek aldatu nahi ditugu teknologia berriak erabiliz eta bezeroari mendira joateko modu errazago eta berritu bat eskainiz.

Gure aplikazioa erabiliz, bezeroek haien inguruan dituzten eta momentu desberdinetan dituzten interesen arabera (aplikazioaren filtro baten bitartez), haienzako interesgarriak izan daitezkeen ibilbideak, mendiak, naturako puntu interesgarriak, ur-jauziak etab. aurkitu ahal izango dituzte era azkar batean. Gainera, urteko ze denboraldi den arabera, haien irteeran zehar izan ahal dituzten eragozpen desberdinetaz ohartaraziko ditu aplikazioak, haien esperientzia naturan ahalik eta onena izan dezan. Horretaz gain, mendira joateko lagun taldeak antolatzeke eta behin ibilbidea bukatuta bizitatu ditzaketen jatetxeak gomendatzeko aukera emango dugu.